



Salatu egin du Udalaren hirigintza politika TB-ek

LARRAMENDI ▶ Afera horretan herritarren interesei bizkarra eman izana leporatu dio plataformak

ALDAKETA ▶ EAJren inguruko enpresa eraikitzaileek mugitu dute egoera TB-eko kideen ustetan ▶ 3


MIKEL ILLARREGI ▶ SARITUA

«Burua beti martxan egonik ideiak sortzen dira»

Olerki Saria irabazi du leitzarrak ▶ 7

Piraguismo ikastaroa ari dira egiten gazteak Uda 2005 ekimenaren baitan

ALEGIA ▶ Astebetetz jardun dute kirol horren nondik norakoak ikasten herritik atera ere egin gabe; Pasaiera joango dira bihar ▶ 5



Gorka Molina. I. TERRADILLOS

GORKA MOLINA ▶ IGERILARIA

«Futbolean eskumuturra hautsi nuelako hasi nintzen kirol honetan»

Ibartarrak bi domina irabazi ditu Espainiako Txapelketan; klubun arteko lehiara doa ▶ 6

ANOETA ▶

EAEko sare nagusiari lotuta dago herriko liburutegia Internetez

Abantaila handiak izango dituzte herritarrek hemendik aurrera ▶ 4

NOELIA LATABURU



KULTURA ▶



Josemari Velez de Mendizabal eta Juan Garmendia Larrañaga liburua eskuetan dutela. JON URBE/ARGAZKI PRESS

Konfiantzagatik zordun

Juan Garmendia Larrañagarekin izandako solasaldiekin liburua kaleratu du Josemari Velez de Mendizabalek

JOXEMI SAIZAR

Ustekabeen harrapatu zuen Josemari Velez de Mendizabalek Juan Garmendia Larrañaga berak konstatutakoekin liburua idaztea proposatu zionean joan zen udan. Duela gutxi kaleratu da liburua, Eusko Ikaskuntzak argitaratuta Tolosako Udalaren eta Kutxako Gizarte Ekintzaren laguntzaz.

Aspaldiko lagunak dira biak, liburuaren egilea eta liburuaren protagonista. Eusko Ikaskuntzan ezagutu zirenetik. «Harrezkero askotan izan gara elkarrekin eta solasaldi informal asko izan ditugu. Elkarrizketa horietatik jasotako apunte asko nituen eta iaz udako ariketa gisa hartu nuen liburua egitea», azaldu dio HITZARI Josemari Velez de Mendizabalek. Lehen harritua Garmendia bera izan zen, «baina zirriborroa pasatu nionean, bere burua errekonozituta ikusi zuen».

Biografia bat ez dela argi utzi nahi du egileak. Apunteetan solasaldi horietan erabilitako hainbat gai jaso zituen: azken albisteak, bezperan gertatutakoak, politika edo erlijio gaiak, lagunak, familia... «Inoiz ez diot galdeketa bat egin. Ezkutuan ere ez naiz ibili. Berak esandako batzuk apuntatu egiten nituen, baina berak ez zekien apunte horiek nituenik. Argitaratu gabe ere berak esandako

beste apunte asko gelditu zaizkit. Pertsona interesgarria iruditzen zaidalako pentsatu nuen argitaratzea», erantsi du Velez de Mendizabalek.

«Lagun asko ditu Juan Garmendiak, bere laguna izaten erraza delako, oso atsegina delako eta lagunak maite dituelako. Zordun nengoen berak eman didan konfiantzagatik», dio egileak. Lagun horietako asko agertzen dira liburuaren orrietan: Barandiaran, Oteiza, Labaien, Mokoroa... Familiako kideek ere protagonismoa badute: gurasoak, emaztea, semeak...

Eguneroko lana

Gizon diplomatikoa bezala defintitzen du egileak tolosarra: «Tolosar guztiek bezala, badauki norekin nola hitz egin, zer esan, zer gorde...». Inauteriak ere oso maiteak dituela dio liburuan. «Accion Catolica-tik bidali zuten Inauterietan gogo jardun batzuetara ez joateaga-

FITXA ▶

Izenburua. Juan Garmendia Larrañaga. Solasean.

Egilea. Josemari Velez de Mendizabal.

Orriak. 95.

Argitaletxea. Eusko Ikaskuntza.

Bilduma. Lankidetzan.

tik. Hori bekatu larria zen garai haietan eta etxean nahigabe handia eman zuen», aipatzen du Velez de Mendizabalek.

Garmendiak eguneroko egindako lana aipatzen du: «Egunez zerbait idatzi, gorde, ekoiztu, pentsatu egin du. Horregatik gero errazagoa zitzaion liburua idazteko. Material asko zeukalako. Orain ere beste 50 bat liburu idazteko materiala izango du etxean. Etxeko negozioari esker, bere lana egiteko denbora asko izan du, batera eta bestera ibiltzeko informazio bila, presarik gabe. Ordu asko inbertitu ditu bere lanean eta artxibo handia lortu du».

Begirunea da aipatzen duen beste ezaugarria: «Norbaitengana joaten denean informazio bila bera baino jakitunagoa dela badaki, eta errespeto handiz tratatzen du horregatik. Bera ez dela maisua dio». Apaltasun horrek ate asko ireki dizkiola uste du. Talde lanari lehenasuna ematen zaion garai hauetan, Juan Garmendia pertsonaje berezia dela esaten du, beti bakarrik egin duelako lana.

Liburua euskara hutsez eman dute argitarara bi solaskideen arteko hizkuntza hori delako: «Beti euskaraz hitz egiten dugu bion artean eta nire apunte guztiak euskaraz ditut, horregatik atera da hala, apunte horiek pixka bat txukunduta, noski».

Liburuan esandakoak

Hauек dira Juan Garmendiak hainbat pertsona eta gairi buruz liburuan esandakoak.

Kaleko umea. Ez naiz mendizalea, arrantzalea edo ehizatzailea inoiz izan.

1955. Lehen artikulua argitaratu nuen *Diario Vasco*-n.

Liburua. Federico Zabalarekin batera Tolosako historia jaso zuen liburua izan zen lehena.

Elkartekak. Peña Parritaren sortzailea izan nintzen. Orain Txinparta eta Casino elkartetako bazkide naiz.

Txantxazalea. Txantxa dut atsegin. Ez ahaztu Tolosakoa naizenik!

Tertuliazalea. 1993ra arte eta 32 urtetan eguneroko, igandeak izan ezik, dendako obradorean biltzen ginen tertulian.

Etnografia. Dendan heriotzaren inguruko ohiturak galitzen zihozazela ikusi nuen eta hasi nintzen notak hartzen.

Oporrak. Inoiz ez ditut hartu. Ez dakit zer den hori.

Aspertzea. Ez naiz aspertzen, ezta abuztuak Tolosako kale bakartietan ere! Burua beti dantzan edukitzean datza formula.

Pilota. Gogoko izan dut urteetan. Julian Retegi oso ona izan da, baina Atano III.a gehiago izan zela uste dut. Dena den, gehien gustatu zaidana Atano VII.a izan da.

Gerra zibila. Ahal izan banu, ez nintzen joango, ez baitut legegionario ezpala. Arrastaka eraman banindute, erreketeen tertzioren batean ala CNTkoekin arituko nintzen. Erreketek ez zuten agintzean aukerarik eta are gutxiago anarkistek; erromantiko hutsak, ezin duak erabat aginterako.

Diplomatiko. Tolosarrok zuri eder faltsuko ospea dugu. Horrek esan nahi du diplomatiko. Isilik egotea normalean komenigarria da. Marratik pasatzea, ordea, zeharo kaltegarria gerta daiteke. Alde batetik hanka sar dezakezulako... eta bestetik entzun nahi ez zenukeena bota diezazuketelako.

Politika. Ez zait batere kostatu iritzi desberdinetako lagun handiak edukitzea: Luis Ola-

rra errepublikazalea eta anarko samarra, ETAk hildako Jose Luis Lopez de Lacalle, Oteiza, Caro Baroja, Barandiaran, Mitxelena... Euskal Herriari elkar entzuteko ahalmena falta zaio. Konponketa txarra ikusten dut gure arazorako. Beti ibili gara horrela. Konponketa gure ezintasun honek kulturari kaltea ekartzen dio eta horrek zeharo kezkatzen nau. Darماغun gerra honetan euskara ateratzen ari da galtzaile. Egoskerkiak kalte handia egin digu eta bide horretatik bagoaz gure hizkuntza amildegiraino eramango dugu, oso ahula da eta.

Kultura. Trantsizio garaian ikusi dut indartsuen. Beste ilusio batzuk genituen denok eta haizea freskoagoa zen, osasuntsuagoa. Urteen joan-etorrian kudeaketak freskotasuna galdu du eta euskara atera da galtzaile. Une honek ez da denona. Gizarteko portzentaia handi batek errefusatu egiten du duela 25 urte baino amorrutaz biziagoarekin.

Fedea. Sinisten dut, baina duda batzuekin! Fededun zintzoa izan nahi dut.

Ignacio Mokoroa. Oso musikoa zen eta organoen mistereoz asko zekien. Labur gelditu zen musika produkzioan.

Antonio Labaien. Erudito bat zen, sekulako jakinduria zuena.

Federico Zabala. Nahiko gogo-biki ginen. Aristokrata zen, sustrai karlistarekin eta ongi erlazioatua.

Koldo Mitxelena. Jeinuezko ukitu bat zuen. Ikaragarriko jakinduriaren jabea zen... eta jeinutasuna zerion.

Julio Caro Baroja. Maisu izan nuen hainbat arlotan. Intelektuala goitik behera, entziklopedikoa.

Jose Miguel Barandiaran. Maitagarria zen, baina bazezkeri errespetua ezartzen. Bere iri esker sekulako aurrerapena egin zuen gure herriaren gaineko kulturak.

Jorge Oteiza. Aparteko izaera zuen. Ezagutu dudana jeinurik bikainena. Eta, apika, horregatik, umore gorabehera handietako gizona. Birritan haserretu nintzen berarekin, eta biak arrazoi berdinetatik: Tolosako eskultura.

HIRIGINTZA ▶

Udalaren hirigintza politika salatu du Tolosa Bizirik-ek

Larramendiko aferan herritarren interesari bizkarra eman izana leporatu zioten Udalari plataformako kideek herenegun eskaini zuten prentsurrekoan

JULEN GOIKOETXEA

«Udal hirigintza politika bi urteko lozorrotik esnatzen ari da. Ez, ordea, tolosarren interes publikoa lehenesteko, eraikitzaile konkretu batzuen interes pribatuari irtenbidea emateko baizik». Horixe salatu zuten herenegun Tolosa Bizirik (TB) herri plataformako Hirigintza Batzordeak — Josetxo Sasieta, Hektor Espin, Aitor Iztueta eta Jose Migel Goenaga— Gorostidi-Voith eremuari buruz emandako prentsurrekoan.

Ezker Abertzaleak, Udala kudeatzen zuenean, Juanjo Gurrutxaga arkitektoari arau aldaketa baterako aurrerapen dokumentu bat idaztea agindu zion. Azterketa horretan bertako enpresen lekualdatzeak ekar zitzakeen kostuak eta be-
rauen lekuan eraiki zitezkeen etxebizitza mota eta kopurua proposatzen ziren. Era honetan tolosarren interes publikoa uz-
tatu nahi zen. Baina proposa-
men hau bere horretan geratu
zen beste udal taldeek ez zute-
lako babestu. Prentsurrean
agertu zirenek esan zuten ez
«EAJren eta EAren ustetan ez
zen une egokia. Horrelako era-
baki bat hartzeko arau subsi-
diarioak osotasunean aztertu
behar zirela zioten».

Baina Tolosa Bizirik-ekoan
ustetan, gauzak aldatu egin
dira; gaur egungo udal gober-
nua «Tolosako iritzia publikoa
Larramendin arau aldaketa
puntual bat emateko presta-
tzen ari da». Honen haritik ai-
patu zuten EAK duela gutxi
gaiaren inguruan egindako
prentsa agerraldia. Platafor-
mako kideek ez dute ulertzen
zergatik duten orain horren-



Ezker-eskuin: Josetxo Sasieta, Hektor Espin, Aitor Iztueta eta Jose Miguel Goenaga, agerraldian. LEIRE MONTES

besteko presa eremu horretan
500 etxebizitza eraikitzeko.
EAJren eta EAren azken urte-
tako iritzia aldaketari ez diote
azalpen garbirik aurkitzen. He-
renegun esan zuten ez, «egoera
mugitu dutenak EAJren ingu-
ruko enpresa eraikitzaileak
dira. Gorostidi-Voith eremuko
lurzorua erositako dute jada eta
Udalari presioa egiten ari dira
honek arauak alda ditzan eta,
horrela, enpresa horiek eraiki
dezaten». Gisa honetako egoe-
ra bizitzen den lehen aldia ez
dela esan zuten eta horren adi-
bide gisa jarri zituzten Mustad,
SAM eta Ipar Usabal enpresak.

Udalak herritarrei bizkarra
eman izana salatu zuten, eta
adibide gisa Laskorain-Goikoa
eremua jarri zuten. TB-koen hi-
tzetan, gune horretan babes
ofizialeko etxe ugari egin dai-

ten, baina Udalak horren in-
guruan ez du ezer jakin nahi.

Honen inguruan bi gauza ar-
gitu nahi izan zituzten. Bertako
enpresek lurzorua jada saldua
dutela eta Apatza-erreka in-
dustriagunera joango direla
esan zuten alde batetik; eta,
bestetik, 330 etxebizitza egin-
da eta horien erdia Babes Ofi-
zialekoak izanda operazioa bi-
deragarria izango litzatekeela.
Garbi utzi nahi izan zuten ba-
bes ofizialeko etxeak egiteak
ez dakarrela galerarik; «ez dira
beste etxeak bezain errentaga-
rriak, baina inolaz ere ez dute
galerarik eragiten».

Bestalde, balizko ustelkeria
kasu bat salatu nahi izan zuten.
Larramendiko lurzorua erosi
duten enpresek informazio pri-
bilegiatua jaso zutela adierazi
zuten. «Udaleko kideek ez du-

ten informazioa jaso ahal izan
dute lurzorua erosi duten en-
presa eraikitzaileak. Ez da
arrunta bestela bi enpresa ba-
karrak sartzea lur horien eros-
ketan».

Epe laburrera auzi honen in-
guruko berri eta xehetasun
gehiago jasotzea espero dutela
eta euren susmoak arrazoizko-
ak diren ala ez jakingo dutela
esan zuten hedabideen aurre-
ra irten zirenek.

Prentsurrekoari amaiera
emateko udal gobernuaren hi-
pokrisia salatu nahi izan zuten
eta herritarrei bizkarra emanez
Udalak bere interesak tolosa-
rrenen gainetik jarri dituela
adierazi zuten. PNVri eginda-
koa garbi azaltzeko eskatu zio-
ten, eta herritarren alde euren
esku dagoen guztia egingo du-
tela esanez amaitu zuten.

GARRAIOA ▶

Renfek zerbitzu bereziak jarri ditu sanferminetarako

Iruñeko sanferminak direla-
eta Renfek tren zerbitzu be-
rezia ezarri du asteburuan
Iruñera joan nahi dutenen-
tzat. Irundik abiatuko diren
tren horiek Tolosako bi gelto-
kietan geratuko dira. Sanfer-
minetara joateko trenak osti-
ral eta larunbat arratsaldean
abiatuko dira, 19:15etan
Irundik. Itzulerakoak, aldiz,
larunbat eta igande goizean
aterako dira Iruñetik, 10:00-
etan. Itzulerako trenak ere
Tolosan geratuko dira.

MUSIKA ▶

Bidaia Bikotearen kontzertua, gaur, Gau Giron

Mixel Ducau eta Caroline
Philips Iparraldeko musikari
ezagunen kontzertua izango
da entzungai gaur gauean,
Plaza Berrian. Udalak antola-
tzen duen Gau Giro ekimen-
aren barruan sartzen da ema-
naldi hau. Gaueko hamarrak
eta erdietan hasiko da saioa,
eta sarrera dohainik izango
dela iragarri dute antolatzaile-
lek.

GIZARTEA ▶

Herritarrentzako jardunaldiak Udalaren eskutik

Herritarren Partaidetzako Jar-
dunaldiak antolatu ditu Uda-
lak gaur eta bihar. Gaur,
19:30etatik aurrera izango
dira jardunaldi horiek. Bihar,
aldiz, goiz eta arratsaldean
parte hartzeko aukera izango
da; hain zuten ere, goiz parte-
an 09:30etan hasiko dira, eta
arratsaldean, berri, 16:00-
etan. Herritarrentzat antola-
tu diren jardunaldi horiek
guztiak udaletxean izango
dira.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio berean

ANOETA ▶ KULTURA

Herriko liburutegia EAEko sare nagusiari lotuta, Internetez

Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalan dauden 173 liburutegietako bat da dagoeneko Anoetakoa



Arantxa Artzamendi, eskuinean, eta Tere Soto, liburutegien sarean bilaketa bat burutzen. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Anoetako Udal Liburutegia Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren (ELSN) baitan sartuta dagoela azaltzeko aurkezpena egin zuten, atzo goizean, Fidel Azpiroz alkateak eta Arantxa Artzamendi Eusko Jaurlaritzako kultura ondareko zuzendariak. Ekitaldian izan ziren ere Jose Ignacio Otermin zinegotzia, Tere Soto kultur teknikaria, eta baita Alkartasuna biltokiko zenbait kide ere.

«Egun berezia da gaurkoa» esanez hasi zen Azpiroz. «173 liburutegitako liburuen berri izateko aukera eskaintzen du sare honetan sartuta izateak». Arantxa Artzamendik azaldu zuenez, sare horrek liburutegien «hormak haustea ekaritzen du, Internet bidez sare

guztitan sartuta dauden liburuen kontsulta egin daitekeelako, eta baita maileguan eskatu ere». Irailtik aurrera izango da aukera beste liburutegietatik liburua eskatzeko. Oraingoz kontsultatu daiteke bai liburutegian bertan dagoen ordenagailutik, bai etxetik bertatik, www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua izeneko helbidean.

Eusko Jaurlaritzak udalekin batera martxan jarri duen ELSN sareak beste «abantaila» bat izango du, Artzamendik azaldu duenez: «Liburutegi guztiek txartel berdina izango dute, eta horrekin edozein liburutegietan hartu ahal izango dira liburua maileguan».

Kultura ondarreko zuzendariak liburutegietan egindako lana azpimarratu zuen, sarean

sartu duten katalogo berria eratu dutelako. Sarean ez ezik, liburutegietan ere katalogo hori ezarri dute eta etiketa berriak ipini zaizkio.

8.268 dokumentu Anoetan

Herriko liburutegian 8.268 dokumentu daude erregistratuta egun. 400 bat anoetarrek dute txartela eta hilean 500 lagun inguru pasatzen dira liburutegitik, gehienak gaztetxoak. Udal liburutegia bi geletan dago banatua, helduentzako eta gaztetxoentzako txokoa.

Oinarritzko zerbitzuez gain, hau da, liburuen mailegua eta atal kontsulta, Interneten nabigatzeko aukera ematen du liburutegiak, hori bai, 12 urte baino gehiago duten pertsonentzat.

ASTEASU ▶ KIROLA

Santamañako V. Kros Igoera etzi goizean

Zazpi kilometroko ibilbidea du eta sari ugari banatuko dituzte korrikalarien artean

ERREDAKZIOA

Santamaña V. Kross Igoera antolatuta dute Santamaña Elkar-tekoeak Udalararen laguntzarekin etzirako. Hurrengo asteburuan Santamañako jaiak egingo dira, eta ohienez, aurreko igandean kros lasterketa prestatzen dute. 10:30ean hasiko da proba. Guztira zazpi kilometroko ibilbidea du krosak. Herrian bi itzuli egin ondoren, Santamañara igoko dira korrikalariak.

Sari ugari banatuko dituzte lehenengoan artean, bai emakumezkoetan bai gizonezkoetan. Horrela, irabazleak 150 euro jasoko ditu; bigarrenak 90 euro; hirugarrenak 60 euro; laugarrenetik seigarrena arte 12 euro; eta zazpigarrenetik hamabostgarrena arte 6 euro. Bestalde, marka ezartzen duenarentzat sari berezia izango da. Baina sa-

rien kontua ez da hor amaituko, lasterketaren bukaeran parte-hartzaileen artean sariak zozketatuko direlako. Eta zorterik ez duenak, behintzat hamaiketako dastatzeko aukera izango du.

Izen-ematea doan da, eta proba hasi baino ordu bete lehenago egin daiteke edo 943 691 907 telefonoan. Iaz 90 bat korrikalarik eman zuten izena.

Pala txapelketaren finala

Aitzondo Txirrindulari Elkar-teak antolatutako pala txapelketa herrikoia finala ez zen jokatu sanpedroetan, festak bertan behera gelditu zirelako. Horregatik, gaur lehiatuko dira Kristo Perez eta Joseba Txapartegi Jose Antonio Kortajarenaren eta Jokin Txapartegiren aurka, 20:00etan, frontoian.

VILLABONA ▶ KIROLA

Errebote taldekoak mailaz igotzeko aukera

ERREDAKZIOA

Uztailaren 16an, larunbata, Behar-Zanako erreboteko senior taldeak Euskal Herriko Txapelketako finala jokatuko du Donibane Garaziko taldearen aurka. Berebiziko garrantzia du, lehenengo mailara igotzeko aukera emango liokelako taldeari. Partida Hiriburun, Lapurdin, jokatuko da, 10:30ean.

Behar-Zanak autobus bat

antolatzeko asmoa du. Villabonako polikiroldagitik aterako da, goizeko bederatzietan. Itzulia, berriz, partidua amaitu eta ordubete beranduago egingo dute. Bidaia doan izango da.

Izena emateko honako telefono hauetara deitu behar da: 606 959 347 (Txomin, 20:00ak arte) eta 661 285 041 (Andoni). Behar-Zanako bazkideentzat zerranda bat jarriko da elkartean bertan.

UDA HONETAN JANTZI EZAZU
HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta

OSKI GAZTEA

Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21
TOLOSA

ALEGIA ▶ KIROLA

Piraguismo ikastaroa, Uda 2005 kanpainako ekimeneren barnean

Astelehenean hasi zen eta bi talde aritzen dira herrian; bihar amaituko dute ikastaroa Pasaiara txangoa eginez



Lehen txandako gazteak piraguaren gainean aritzen dira goizean goizetik Alegiako ibaian. NOELIA LATABURU

MARIJO ARRIETA ▶ PIRAGUISMO IRAKASLEA

«Oso gustura aritzen naiz gazteekin irakasle lanetan»

Hernaniarra izatez, 10 urtez masajista aritu ostean herriz herri dabil gaztetxoei piraguismo ikastaroak ematen, kirola «beti izan baitu gustuko».

Noiz hasi zinen piraguismo ikastaroekin?

Duela zazpi urte lagun batek proposatu zidan lan honetan sartzea eta horrela animatu nintzen. Aurretik ez nuen piraguismoaren gaineko jakintza gehiegirik, masajista lanetan ibilitakoa naiz eta, baina haurrei erakusteko adina banekienez, baiezkoa eman nuen eta gustura nabil irakasle lanetan.

Zer behar da kirol honetan ondo aritzeko?

Nik gutxiengo ezagutzak erakusten dizkiet nire ikasleei. Ikastaroak oso motzak izaten dira, eta ez dut teknika gehiegi lantzen.

Nola ikusi dituzu Alegiako gaztetxoak?

Gazteak segituan animatzen

dira ekintza berriak proposatzen dizkietenean. Beraz, ez dute inolako arazorik izan, eta dena lehenengoan egin dute. Gainera, gogotsu daude Pasaiara egingo dugun txangoa noiz ailegatu. Dena den, denek errepikatu didate ikastaroa oso motza dela eta luzeago izan beharko zuela. ◀



NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Uda 2005 programa Alegiara ere heldu da aste honetan. Izan ere, astelehenean piraguismo ikastaroarekin hasi ziren, Alegiako ibai ertzean. Astebetez, piraguak hartu eta ibaian gora eta behera aritu dira herriko gaztetxoak. 15 partaidetako bi taldetan banatu dituzte izena eman zuten guztiak. Lehen txandakoak, 12 urtetik gorakoek, 10:00etan hasi eta ordu eta erdiz praktikatzan dute eta bigarren txandakoak, 8 eta 12 urte bitartekoak, 11:30ean hartzen dute lekukoa. Bi irakasle arduratzen dira ikastaroaren gidaritzaz: Marijo Arrieta eta Antton Zabala, biak ala biak hernaniarrak.

Marijo Arrieta «pozik» azaldu da Alegiako umeek emandako erantzunarekin eta eguraldiak «gehiegi lagundu ez badu ere», umeak ondo pasatu dutela eta kirol horren gaineko lehen ezagutzak ere hartu dituztela dio. Ikastaroa borobiltzeko, bihar Pasaiara txangoa egingo dute, non itsasoan piraguaren gainean ikasitako guztiak landuko dituzten. «Lehen urtea dute eta oinarriko gauzak irakasten dizkiet», esan du irakasleak. Umeek segituan hartu diote tamaina ikastaroari, «batik bat txikienean», eta «errepikatzen gogoz» daudela gaineratu du, hori «oso pozgarria da irakasle batentzat».

Piraguan oreka mantentzen, ura nola mugitu behar den eta aurrera egiteko tekniken berri ematen dituzte Arrieta eta Zabala ikastaroan; era guztiakoko jokoak erabiltzen dituzte: lasterketak, binaka piraguetan aritzea eta boleibola, esaterako. Helburua «kirol honekiko grina piztea eta gazteak ondo pasatzea da». Alegiako erreka «zer edo zer hobetu» daitekeela ere esan dute irakasleek, izan ere, umeek jaisteko eta karga eta deskarga egiteko arazoak izan dituzte. Hala ere, datorren urterako proiektua aurrera aterako delakoan dira, «alde denak ados baitaude».

AMEZKETA ▶

Aurrera darrai XVI. Joxean Tolosa pilota txapelketak

Gaurtik igandera bitarte, hamairu norgehiagoka jokatu dituzte

N. LATABURU

Aurreko asteburuan Amezketa hasi zen pilota txapelketak aurrera darrai. Horrela, gaur gauean hasi eta igandera bitarte txapelketako bigarren jardunaldia egingo dute. Guztira hamahiru neurketa izango dira jokoan.

Gaur 22:00etan hasiko dira banakako hiru partidak, 18 tantora jokatzan direnak. Kadete mailan, Ariznabarreta (Zegama) eta Lezaun (Mendaro) izango dira aurrez aurre eta Zinkunegik (Usurbil) Oliveirak (Lazkao) jokatu dute. Gazteetan, berriz, Martinez (Lizartza) eta Andueza (Azkoitia) ariko dira. Bihar, berriz, bi txanda izango dira. 16:30ean, Artola (Amezketak) eta Zelaia (Getaria) eta Errazkin (Saias) eta Juanena (Txaruta) ariko dira kadeteetan. Gazteen artekoa Zubillaga (Andoain) eta Goikoetxea (Txapagain) pilotariei dagokie. 22:00etan, Iribar (Antigu) eta Sarasola (Añorga) kirolariak jokatu dute kadeteetan. Gazteetan, Epelde (Azkoitia) eta Telleriak (Saias) izango dute neurketa eta nagusien mailakoek ere jokatu dute asteburu honetan: Alberdik (Getaria) eta Martinezek (Lizartza), alegia. Igandean, 16:30ean, Albu (Ataun) eta Jauregi (Azkarate) eta Iraola (Usurbil) eta Azkune (Durango) izango dira lehian kadeteetan; Insausti (Lazkao) eta Iriarte (Leitza) gazteetan eta Arrizabalaga (Alza) eta Beloki (Amezketak) nagusietan.

kristorena*

*Koltxoi eder batean 3 edo 4 orduko siesta egindakoan esaten dena.

bede

DENDAK koltxotekoa anetuk

merkealdia

Premier koltxoi modeloa Goiko gamako koltxoia gerrialdean indartuta.

Serta

%30 arteko beherapena

Ela Alzariak
Lizardi plaza, 2 • TOLOSA • ☎ 943 65 29 01

12 hilabete arteko finantzaketa, intereseik gabe www.beds.es

Atsedenen kate liderra, 192 dendarekin

ATSEDENA
ETXEA
JOERAK
MODA
OSASUNA
ZERBITZUA
KALITATEA

BERASTEGI ▶

Calahorrara
bidaia antolatu
du Gaztainondok

Berastegiko Gaztainondo jubilatutako elkarteak uztailearen 21ean Calahorrara irteera antolatu du. Bertan, eliza eta azoka bisitatuko dute, eta ondoren Azagrara joango dira eta Venezia hostalean bazkalduko dute. Izena eman nahi duenak Gaztainondo elkartearen bertan egin dezake, edo 943 68 32 02 zenbakira hots eginez. Bazkideek 22 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, berriak, 25 euro.

IBARRA ▶

Odol ematea
egingo da gaur
Osasun Etxean

Ibarrako odol emateen elkarteak adierazi nahi du odol ateratze kanpaina egingo duela gaur. Ibarrako Osasun Etxean egingo da odol ateratzea 19:00etatik 21:00etara.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinikak 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

GORKA MOLINA ▶ IGERILARIA

«Lauzpabost igerilariren artean
banatu ditugu sariak orain arte»

Orain bi hilabete jokatu zuen Espaniako Txapelketan bi domina irabazi zituen; datorren astean Bartzelonan izango den klubaren artekoan hartuko du parte

IÑIGO TERRADILLOS

Gorka Molina 25 urteko ibartarra Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeko kidea da eta esperientzia handia du kirol horretan. Izan ere, lortu dituen sariak erakusten dute hori. Parte hartu duen azken txapelketan esaterako, hau da Tenerifen jokatu zen autonomia erkidegoen arteko txapelketan bi dominekin itzuli zen etxera. Datorren astean izango du hurrengo hitzordua Bartzelonan jokatu den Klubaren arteko Igeriketa Txapelketan, eta ziur handik ere saririk ekartzen duela. Txapelketa horren inguruan, eta kirol honen inguruan aritu da solasean ibartarra Hitzarekin.

Orain gutxi jokatu Espainiako Txapelketatik urrezko eta zilarrezko domina banarekin bueltatu zinen. Ohitura bihurtu dela dirudi dominak irabaztearena.

Apirilean, Aste Santuaren aurretik izan zen Tenerifen Hegats Igeriketako Autonomia Erkidegoen Arteko Txapelketa eta bi domina irabazi nituen, 100 metrotan urrezkoa eta 50 metrotan zilarrezkoa irabazi nituen, eta taldeka Euskadiko Selektzioa laugarren geratu zen. Ez nuen gehiegi entrenatu eta zorrea aldeko izan nuela esan behar da; hegats berriak izateak ere asko lagundu zuen.

Etxean domina asko izango dituzu.

Duela zazpi urtetik hasi nintzen txapelketetan irabazten, eta ordutik dezente bildu ditut. Kontua da maila handia dutenak ez direla hainbeste, eta orduan urte honetan batek eta hurrengoan besteak irabazten du; horrela da lau zpabost igerilariren kasuan. Hala ere, maila asko igo da azken aldian.

Lehiakortasuna asko handitu dela esan nahi duzu.

Gero eta maila handiagoa dago; lehen euskaldunak, kataluniarrak eta balear irletakak bakarrik geunden, baina orain valentziarrak, nafarrak, galiziarak, errusiarrak, italiarrak... ageri dira, lehiakortasuna handituz doa, beraz.

Maila handi lortzeko zer behar da?

Oso gaztetik entrenatzen hasi behar da. Hala ere, nire ustez abiadura ez da lantzen. Landu

daiteke, baina, badaukazu ala ez. Iraupena, ordea bai, eta entrenatu duzun edo ez duzun asko nabaritzen da.

Guztia ikasia al duzu kirol horretan?

Beti ikasten da zerbait. Aurrean adibidez teknika aldatu egin dugu zertxobait eta oso ondo ari gara egiten. Materiala ere berrituz joan behar da uneoro zeresan handia baitu, denbora asko jaitsi daiteke hegats batekin edo bestearekin aritzen bazara. Guk Frantzia edo Errusian erosten dugu materiala.

Nolakoak izaten dira prestaketak?

Arratsaldean, 17:30ean gimnasioa joaten naiz eta 20:00ak arte egoten naiz han. Ondoren, 21:00etatik 22:00ak arte igerilekuan. Orain udan 23:00ak arte.

Eta noiz eta nolatan hasi zinen?

Duela 10 urte hasi nintzen. Futbolearen aritzen nintzen eta eskumuturra hautsi nuenez sendatzeko igeriketarekin hasi nintzen. Hegatsekin aritzen nintzen eta gustatu egin zitzaizdan eta jarraitzea pentsatu nuen.

Hurrengo astean izango duzu hurrengo hitzordua, klubaren arteko txapelketa.

Bartzelonan izango da txapel-



I. TERRADILLOS

keta. Aurrekoan baino esperantza gutxiago dut, entrenatu ere gutxiago egin dudalako eta lesionaturik izan naizelako, baina ahal duguna egingo

dugu. Kasu honetan ere, barka eta taldeka izango dira sariak, beraz, ea sari handiekin etortzen garen bueltan etxera.

BERASTEGI ▶ INGURUMENA



Amuarrain ugari agertu dira hilda

I. Terradillos ▶ Pasa den larunbatean amuarrain ugari agertu ziren hilik Berastegin. Bertako Uli errekan gertatu zen, Sagastiberri baserriaren

eta Zubizabaleta zubiaren artean, hain zuzen. Ez dago argi zein den amuarrain horiek hilik agertu izanaren arrazoia. HITZA

MIKEL ILLARREGI ▶ MARIO MARRODAN X. OLERKI SARIAREN IRABAZLEA

«Buruia beti martxan egonik tartean ideiak sortzen dira»

Beste gauza batzuekin batera, olerkiak idaztea ere bada bere afizioa, eta 'Argazkiei begira' bilduma saritu diote



JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Bi-ko-lo-re: Bi/biko/bi lore/bi kolore/biko lore/bi kolore/bi lore/biko/bi./Kolare eta lore, /loreairen kolore./Bikoaren oreka/batak besteari fereka./Loreari kolorea./bata bestea gabe deus ezta./kolorerik gabeko lorea./Edertasunaren ikurra da lorea./Edertasuna janzteko dugu kolorea./gorria, berdea, horia, txuria/edota morea./Kolorea eta lorea./Lorearen kolorea./Bana ezinezko bikote dotorea. Hauxe bezalako olerkiak tarteko, Mikel Illarregi leitzarrak Mario Marrodan X. Olerki Saria irabazi berri du, Argazkiei begira olerki bildumarekin.

Zorionak. Nola jaso zenuen berria?

Bilduma bidali eta egun batzuetara gutun bat jaso nuen, saria niri ematea erabaki zutela jakinarazi. Ezustekoa izan zen.

Herenegun jakin zen Mario Angel Marrodan, hain justu irabazi duzun sariak honen izena darama, zendu egin zela. Ezagun zenuen?

Ez nuen ezagutzen orain arte. Dakidanez, txirotasuna izan du bere lanetako gai nagusi, gai

sozialak-eta lantzen izan behar zituen.

'Argazkiei begira' poema sailarekin lortu duzu saria. Kultur Astearen argazkiekin lagunduta erakusketa egin zenuen aurrena.

Olerki batzuk eginak nituen eta hauekin eta argazkiekin erakusketa jarri genuen, bai. Eta gero, hauekin eta beste batzuekin bilduma moduko bat egin da aurkeztu nituen. Gai bakarra ere ez zen, baina batez ere natura (ura, lainoa, berdetasuna...) lantzen zuten, hortik sortutako hainbat sentimenduren adierazpenak bildu eta kontestatu horrekin bidali nituen.

Eta sariketa honen berri izan eta aurkeztu. Ezagutzen al zenuen?

Prentsan noizbait irakurria eta jasoa nuen, oso gutxitan izaten baita olerkien sariketen berri. Erakusketan jendearengandik jaso nituen animo eta erreazioak ikusita, bidaltzea pentsatu nuen.

Lehenengo aldia da horrelako sariketa batera aurkezten zarena?

Ez, ez da lehendabizikoa izan. Beste lan batzuk ere aurkeztu izan ditut, bai bakarrik eta bai esate baterako ikasleekin ba-

tera ere, baina probatzeagatik, ikusteagatik... Niretzat, urtetako zaletasun bat da idaztea, afizio bat, ez dut inolako disziplinarik, gogoa dudanean idazten dut, eta beste zaletasun batzuekin batera, argazkiak ateratzea dela, eskulanak egitea dela; gauza asko ditut gogoko eta hau ere bai, besterik gabe. Eta jarraituko dut egiten.

Erakusketan irudia eta hitza lotuta ageri ziren. Nola egin dituzu poema hauek, nola idazten da poema bat?

Buruia beti martxan egoten da eta tarteka ideiak ateratzen dira. Begira, mendira joandakoan, orduan eta gehiago, gainera. Gero zerbait gelditzen da eta behin etxean jarri eta horren inguruan zerbait idazten hasten zara. Olerkiak egitea, hitz joko bat da, horri itxura, tonua, erritmoa emanez. Hasieran zirriborroa izaten da gero zorroztu doana. Gehienetan, argazkiak oinarri hartu eta horiek erakusten dutenari buruz, eragiten dituzten sentimenei buruz, olerkiak sortzen dira. Edo alderantziz ere bai, aurrena olerkia egin eta gero horri irudia bilatu izan diot, adibidez erakusketa horretakoan.

Gainera, gai dezente eta oso desberdinak landu dituzu.

Edozein gairekin eta irudiren aurrean, unean sentitzen duzunaren arabera, edo ez dakit zergatik, horrela ateratzen da, eta gero, irakurleak interpreta dezake, bere ustearekin. Baina esango nuke olerkia sortzeko gehiago dela irakurtzeko baino, niretzat. Olerkiak irakurtzea baino nahiago dut bestela.

Lan honekin liburua argitaratzekotan zara orain?

Bai, hori da saria. *Argazkiei begira* izenarekin bidalitako poema argazkirik gabe bidali nituen. Eta orain, proposatu diet argazkiak ere sartzea, bat heldu direlako, eta baiezkoa erantzun didate.

Zer fasetan dago orain?

Azken zuzenketak egiten ari naiz eta sartuko dituzten argazkiak aukeratzen ere, gai batzuetan bat baino gehiago bainituen.

Noiz aterako da?

Uztailean prestatzen bukatu eta irailerako esan didate, sari-banaketa ere orduan izan omen da eta.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Eneko Aizpuru Soto del Real-en espetxeratu dute

«Inkomunikatuta» Madrilera eramana zela jakin dute senideek, azkenik, bi egunera

J. ASTIBIA

Atzo arratsaldeko lehen orduetan Grande Malaska Entzutegi Nazionalako epailearen aurretik igaro ondoren, Eneko Aizpuru espetxeratzeko agindua eman zuten. Horrela, bada, Soto del Real espetxera eramana zuten leitzar gaztea.

Azken bi egun hauetan senideek ez zuten Aizpuruaren egonearen inolako berririk, uestez, komunikabideetan agertu zenaren arabera, «asteartean Baionan atxilotu» zutenetik. Asteazken goizeko albistearen entzunda, ez zuten hori baiezatzeko edo ezeztatzeko modurik izan: hara jo eta honera jo ibilita ere, ez senideek, ez abokatuek, ez omen zuten inolako berririk jaso. Askatasunak berak ere, «desagertu-

tzat» jo zuen. Azkenik, atzo goizean, abokatuaren bidez, jakindu zuten goizean zehar epailearen aurretik igaro beharria zela, Madrilera, Entzutegiana.

Horixe izan zen azken bi egunetan senide eta lagunek jaso zuten lehen eta azken berria, Aizpuruaren egonez eta egoeraz: «Inkomunikazio egoera» ezarrita atxilotu, «asteartean goizean Baionako komisaldetxan egin eta asteazkeneko Irungoan» eman zuela, eta epailearen aurrean «bost minutu egin» zituela, honek «Segi-ko kide izatea leporatu» eta espetxeratzeko agindua emateko beta. Erredakzio hau ixterakoan senideek ez zuten oraindik Aizpuruarekin zuzenean hitz egiteko aukerarik izan eta horren zain zeuden, bi egunetara.

GIZARTEA ▶

Begirale izateko ikastarorako izen-ematea luzatu da

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak hurrengo ikasturterako antolatutako duen aisiardiko begirale izateko ikastaroan izena emateko epea luzatu egin du: uztailaren erdi aldera arte egin daiteke izen-ematea. Gogorarazi dute egoitzara bertara joan behar dela, horretarako aurrez 325 euroko matrikularen ordainagiria (Euskadiko Kutxan Urtxintxa Eskolaren kontu korronte zenbakian egina), eraman behar dela, argazki bat, NAN delakoaren bi kopia eta Eskola Graduatuaren Ziurtagiriarekin batera. Ikastaroa irailaren 5etik urriaren 1era egingen dute. Parte hartzeko 18 urte beteak eta Eskola Graduatuaren jabe izateko dira baldintza bakarrak.

iragarki laburrak ▶

LANA

Neska euskalduna. Neska euskalduna behar da, Belauntzan, irailetik aurrera 6 hilabeteko haurra zaintzeko. Orduetgia: 07:30-14:00. 608 77 48 44.

LEITZA ▶

Barriolak ez du San Fermingo saria eskuratu

Atzo eguerdian jokatu zuten Iruñeko Labrinten aurtengo San Fermin Torneoako finala Olaizola II.ak eta Abel Barriolak, eta azkenean goizuetarra jabetu zen txapelaz, 22-11ko emaitza lortu ondoren. Olaizola 3-0 irabazten hasi bazen ere, Barriolak 4-3ko markagailuarekin aurrea hartu zion. Baina Olaizolak, hasi bazen hasi, buelta eman zion partiduari eta erabat aurretik joan zen, 19-9tik pasatu eta 22-11ra iritsi arte. Barriolak asko arriskatu zuen, eta txapalera eta zabalera pilota askok ihes egin zitoten, zortekak ere batera lagundu ez eta.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Eztabaidak eta inkestak.

HITZAko web orrialdean sartuta, unean uneko eztabaidagai dagoenari buruz zure iritzia eman dezakezu edota inkestako galderari erantzun. Edo bestelako gaiak ere proposa ditzakezu. Denon artean, egin dezagun egunkaria!!



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko uztailaren 8a, ostirala ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (Zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Laster banda zabala sartuko dutela eta, Euskaltel-eko arduradunek informazio bilera eskainiko dute, Kultur Etxean, 19:30ean.

Alegia. San Joan eskolako zenbait ikaslek bi antzezlan eskainiko dituzte herritarren aurrean: batetik, *Martxin txiki eta gentilak* eta, bestetik, *Ama begira zazu*. Zinema aretoan izango da emanaldia, 19:30ean.

Alegia. Festa Alternatiboen barruan, hilaren 15ean egingo den bazkarirako txartelak salgai daude betiko tabernetan 5 eurotan.

Alkiza. Agenda 21 prozesua dela-eta osatu den diagnostikoaren lehen zirriborroa aurkezteko eta herritar guztien artean atzeman diren hutsuneei konponbideak bilatzen saiatzeko herri bilera egingo dute Kultur Etxean, 20:30ean, Udalak deituta.

Aitzo. 2004ko urtekaria aurkeztuko dute Elordi kultur etxean 20:00etan; ondoren merienda egingo dute.

Ibarra. ENAren tramitazioa egin eta ziurtagiria dutenek deitu 635 00 94 96ra berriro tramitatzeko, datuak galdu egin baitira.

Tolosa. Udaberri dantzari taldeak dantza ikastaroak antolatuta ditu 2005-06 ikasturterako, Igarondo igerilekuan, 10 eurotan. Izena emateko azken eguna gaur, 17:00etatik 20:00etara, Udaberriren lokalean (Igaralde kalea).

Tolosa. Arau subsidiarioen inguruko Herritarren Partaidetzako Jardunaldiak, gaur 19:30ean eta bihar 09:30ean eta 16:00etan udaletxean.

MUSIKA

Tolosa. Iparraldeko Bidaia bikotea, Mixel Ducau eta Caroline Phillips, ariko dira Plaza Berrian 22:30ean hasita Gau Giro barruan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 65 15 40.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Kontent batzuk, beldur besteak, entzierroari begira. LEIRE MONTES



Zenentxoan aurrean trebetasun handia erakutsi zuten askok. L. MONTES

Tolosa ere, zuri-gorritz

TOLOSA ▶ Herriko haur eta gaztetxo ausartenek entzierroa korritu zuten, atzo, Alde Zaharreko sanferminetan; txokolatada eta 'Probre de mi' ere izan ziren



Jendetza bildu zen Plaza Berrira; jai giroan ospatu zuten guztiek San Fermin eguna. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES

Tolosa ere, Iruñea bezala, zuri-gorritz jantzi zen atzo Alde Zaharreko sanferminak ospatzeko. Urduritasuna, poza, beldurra, irribarreak... irakurtzen ziren Plaza Berrira bildutako haurren aurpegietan. Suziria jaurti eta entzierroa noiz abiatu zain ziren.

Pum! Ausartenak lasterka hasi ziren, zenentxoan aurrean, bizi-bizi. *Gurpil-xenenak* zermatzaten gaztetxoek nahiko lan izan zuten umeak jarraitzen. Errementari eta Korreo kaleetatik pasatu, eta Plaza Berrian ziren denak, segituan.

Han ere jarraitu zuen festak. Zalapartak, algarak, salto eta brinkoek. Gero, txokolate beroa hartu zuten indarberritzeko. Iluntzean *Pobre de mi* abestuz esan zioten agur San Fermin egunari. Jada hurrengo urtekoan pentsatzen.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN Lide.

Gaur 7 urte.

Zorionak familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!